



Ekologia

Kontzeptuak eta aplikazioak

Manuel C. Molles Jr.

Jakintza-arloa / CDU:

Ekologia (574)

ISBN: 978-84-9860-551-8

21,5 x 29 cm

616 orr.

PSP: 60,00 €

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Argitalpen Zerbitzua

1.397 posta-kutxatila

48080 BILBAO

Tfnoa.: 946 012 000

Faxa: 946 012 333

e-posta: editorial@ehu.es

<http://www.argitalpenak.ehu.es>

Banatzailea:

ELKAR Banaketa

Portuetxe, 88

20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tfnoa.: 943 311 821

Faxa: 943 310 453 / 943 310 452

e-posta: eskaerak@elkar.com

<http://www.elkar.com>

Aurkikuntza berrien erritmoa azkar doanez, diziplina zientifiko dinamiko bat irakastea —hala nola ekologia— erronka handia da. Baina ekologiako irakasleen eta ikasleen erronka are handiagoa da, sistema ekologikoak maila askotan mehatxatzen dituzten ingurumen-arazo premiazkoetan ekologiak duen garrantzia kontuan hartzen badugu. Ikasleak arazo horiek ulertzeko eta konponbideak diseinatzeko hezten saiatzen garenean, ekologiaren alderdi guztiak dira garrantzitsuak. Beraz, ekologiaren hastapenetan azpidiziplina garrantzitsu guztien oinarriak bildu beharko lirateke.

San Antonion (Texas), Ecological Society of America elkartearen 1991ko bileran, Paul Risser ekologo ospetsuak arloko kontzeptu garrantzitsuetan kontzentratzeko erronka bota zien ekologiako irakasleei. Risserrek proposatu zuen kontzeptu nagusietan kontzentratuz gero diziplinaren egitura sendo bat eskainiko geniola irakasleei, gero kontzeptu horien gainean eraikiz joateko.

Liburu honekin Risserren erronkari erantzun nahi izan diot. Kapitulu bakoitzean, bi eta bost kontzeptu nagusi bitarte jorratzen dira, eta ikasleari gaiaren laburpen erabilgarri eta gogoangarria aurkezten zaio. Kontzeptu bakoitza kontzeptuaren ebidentzia eskaintzen duten azalpenez lagunduta dago, eta, azalpen horien bidez, ekologiaren orotariko esparruetan erabiltzen diren ikerketa-hurbilketak eskaintzen zaizkie irakasleei. Ahal denean, jatorrizko ikerketa eta hori egin zuten zientzialariak aurkezten zaizkie. Arloa sortu zuten zientzialariak orrialdeotara ekarriz eta ikasleak diziplinan barneratuz, indar berezia ematen zaio arloari, eta irakasleei informazioa gogoratzen laguntzen die horrek.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL